

9. PRAKTIKA

Praktikaren izenburua: Teknika didaktikoak berreskuratzea eta baloratzea

Praktika mota: Baloraziokoa

Zure bizitzan zehar, bai testuinguru formalean bai ez-formalean, hainbat teknika didaktikorekin esperientzia izan duzu. Teorian landu ditugun ikaskuntza-irakaskuntza metodoetatik bereizten diren teknika didaktikoak ondorengo taulan jaso.

Taulan teknikaren izena (edo deskribapena) idatzi, erabili den asmoarekin azaldu eta, zure ustez, teknikak ikaskuntzarako dituen alderdi positiboak eta negatiboak baloratu.

TEKNIKA (izena/deskribapena)	HELBURUA	Alderdi positiboak (posibilitateak) eta negatiboak (mugatzailak)

ERANTZUNA

Jarraian ematen den erantzuna orientagarria baino ez da. Ez dago erantzun bakarra

TEKNIKA (izena/deskribapena)	HELBURUA	Alderdi positiboak (posibilitateak) eta negatiboak (mugatzailleak)
Puzlea	Ikasleek haien helburuak lortu ahal izateko bata besteen menpe egotea.	Egokia iruditzen zait ikasleen arteko harremana sendotzeko. Aldiz, guztien parte-hartzea eskatzen du.
Tertulia	Gai bati buruz dauden ideiak partekatzea, ezagutzea eta aktiboki eztabaidatzea.	Lauko taldeetan testu bat irakurri eta horri buruz zer dakigun eta zer pentsatzen dugun elkarrekin partekatzeko erabiltzen da. Ondoren, taldean ateratako hausnarketak klase guztiarekin partekatzen dira. Teknika hau oso baliagarria eta interesgarria da lankideekin ideiak eztabaidatu eta partekatu ahal izateko.
Posterra	Ideiak antolatzea eta modu erakargarri batean erakustea.	Posterra noizean behin erabiltzen den teknika da eta ondo egiten bada oso erakargarria eta adierazgarria izan daiteke. Talde lana eta irudimena lantzeko oso aproposa da.
Role-play	Egoera baten aurrean ematen diren rolak behatzea eta aztertzea. Egoera problematiko baten aurrean jarrera ezberdinak agerian jartzea.	Gai baten inguruan eztabaidatzeko eta jarrera ezberdinak ezagutzeko baliagarria da. Aldiz, lotsak eta halako sentimenduak gainditu behar dira.
<i>Brainstorming</i>	Gai bati buruz ideia ezberdinak lortzea. Parte-hartze aktiboa eta taldearen inplikazioa lortzea.	Teknika hau askotan erabiltzen den estrategia da, izan ere, ikasleen aurrezagutzak kanporatzeko metodorik hoberenetakoa dela pentsatzen dut. Gai bat hasi baino lehen erabiltzen da ikasleek gai horren inguruan zer dakiten jakiteko. Izan ere, askotan pentsatzen duguna baino gehiago dakigu.

Semaforoa	Taldeak dituen interesen eta helburuen eztabaida sustatzea. Hartutako erabakien inguruan hausnartzea eta hitz egitea.	Begirale ikastaroan egin nuen. Kontua da umeek hiru koloretako kartoiak (gorria, laranja eta berdea) zituztela eta gai baten inguruan guztion artean zerbait adostu behar zuten. Abantailak hauek dira: ideia guztiak errespetatzen ikasten da, eta talde lanean adostasun batera heltzea zaila dela ikastea. Desabantaila: zaila dela txandak eta iritzi guztiak errespetatzea, eta frustrazio sentimenduak ekiditea.
METODOA	HELBURUA	Alderdi positiboak (posibilitateak) eta negatiboak (mugatzailak)
Kasuen metodoa	Kasuak ezagutzea, interpretatzea, irtenbideak ematea, diagnostikatzea, hipotesiak egitea, datuak alderatzea, hausnartzea eta ezagutzak lortzea kasu errealean edo hipotetikoan bitartez.	Egoera baten aurrean kasu horri nola aurre egin ikasten da. Horretaz gain, irakaskuntzarekiko motibazioa handitzen da; alde batetik, adituaren errealitatearekin konexio bat sortzen da eta, bestetik, adituaren paperean jartzeko aukera ematen du.
Arazoetan Oinarritutako Ikaskuntza	Arazo bati irtenbidea emanez, ikaskuntza aktiboa garatzea. Ezagutzak praktikan jartzea eta horietan trebatzea.	Metodo honek lanbidera eta lan egingo den errealitatera hurbiltzen du. Inplikazioa handia da, aditu baten paperean jartzen zaituelako eta horrek bakarkako eta taldeko lana sustatzen du. Gainera, arazoak konpontzeko eta erabakiak hartzeko gaitasuna bereganatzen laguntzen du; teoriaren eta praktikaren arteko loturak egitea, egoerak ondo aztertzea, aurrezagutzak erabiltzea, irtenbide posibleak bilatzea ...
Proiektuetan Oinarritutako Ikaskuntza	Gai zehatz baten inguruan ikertzea, hipotesiak botatzea, komunikazioa sustatzea, ezagutzak barneratzea...	Proiektuak ondo landuta baldin badaude eta benetan pertsonen interesak eta motibazioa kontuan hartzen badute, irakaskuntza metodorik onena dela iruditzen zait. Besteren artean, emaitza bat lortzen da, benetako ikertzailea sentiarazten dizu, eta irakaskuntza integratzailea sustatzen da.